



**AGINDUA, 2019KO UZTAILAREN 29KOA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA ETA LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, HASIERA EMATEN DIONA HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEI ETA HORIEN BERMEARI, PREBENTZIOARI ETA BABESARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.**

Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 28an onetsitako «XI. Legegintzaldiko Legegintzaldi Programak» Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak sustatuko dituen lege-proiektuen zerrendan sartzen du «Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea aldatzekoa.

Hasiera batean, aipatutako lege-proiektua legegintzaldi honetarako Gobernuaren Legegintzaldi Programan sartzearen helburua zen indarrean dagoen Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea (aurrerantzean, HNL) eguneratzea eta haren edukia hobetzea, haurren eta nerabeen babesari buruzko III. titulua osatzen duten xedapen arauemaileak aldatuta.

Helburu hori ezartzeko arrazoia, halaber, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldarazten duten uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoari eta uztailaren 28ko 26/2015 Legeari jarraikiz onetsitako oinarritzko xedapenak txertatzeko eta garatzeko beharra izan zen, baita haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko euskal ordenamendu juridikoan xedapen horiek eragiten dituzten ondorio eta aldaketei berehala heltzeko premia ere.

Horrela, «ekintza ezaren» aukera saihesten da, zeinaren bitartez modu bateratuan aplikatzen baitira HNLAN jasotako egungo erregulazioa –Estatuko legeak urratzen ez dituen arloetan– eta Estatuko legeria organikoa, bai eta Estatuko oinarritzko lege-xedapenak ere, esparru horretako lehenagoko ordenamendu juridikoari berrikuntzaren bat edo aldaketaren bat ekarri dioten arlo guztietan, horrek eragiten duen segurtasun-gabezia juridiko nabarmenarekin.

Hala eta guztiz ere, beharrezko analisi, barne hausnarketa eta prestaketa prozesu bat egin zen HNLa III. tituluak izango zuen eduki berriaren diseinuaren eta jarraitu beharreko egituraren inguruan, eta, eduki horrek aldatu beharreko lege-testuko beste titulu batzuen xedapen arauemaileetan izango lukeen eragin zuzena ikusita, euskal administrazio edo sistema publikoetan ezarri beharreko arlo bereko beste politikekin zuen loturaz gain, erabaki zen egokiagoa zela, arau orori eskatzen zaien segurtasun juridikoa babesteko, indarrean dagoen HNLa indargabetu eta ondore guztietarako ordeztuko duen lege berri bat onestea.

Gainera, HNLa onetsi zenetik denbora dezente igaro denez, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko euskal ordenamendu juridikoa 2015ean arlo horretan estatu mailan onetsitako legezko xedapenetara egokitzeko lege-testu hori berrikusi beharrak aukera ematen zuen lege integral bat egin eta onesteko, adingabe guztiek bizitzaren arlo desberdinetan (hezkuntza, osasuna, familia, arlo soziala, juridikoa...), esparru publiko nahiz pribatuan, dituzten eskubideak bermatzera bideratutakoa.

Eta, ildo beretik, haurrei eta nerabeei buruzko eduki guztia artikuludun testu bakar batean arautzeko aukera zegoen, honako arlo hauetan ardaztutako alderdi eta neurrien arauketa barne hartzen zuen diziplina anitzeko ikuspegi orokor batetik: parte-hartzea; sustapena (kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza); prebentzioa (detekzio eta arreta goiztiarra); haurren eta nerabeen babes (laguntzeko esku-hartzeak); eta haien eskubideen urraketen erreparazioa.

Testuinguru horretan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (aurrerantzean, XOEPL) hauxe ezartzen du: zer prozedurari lotu beharko zaio Eusko Jaurlaritzaren jarduera, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko, hain zuzen, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Puntu honetan, lege horretako 4. artikulua lehenengo apartatuak ezartzen duenez, xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko prozedura; eta, xedapen orokor horien gaiaren gainean sailburu bik edo gehiagok eskumen zuzena dutenean, guztiek batera eman beharko dute agindua.

Era berean, baldin eta, xedapen orokorrak egiteko prozedura hasi eta gero, premia ikusten bada beste sail batzuek ere parte har dezaten, egitekoak diren xedapenek sail horien eskumenera gaitan eragina izan dezaketelako, 4. artikulua bigarren apartatuak aukera ematen die sail horiei prozeduran parte hartzeko, une horretara arte egindako jarduketak mantenduz, ahal den neurrian.

Eta, beste alde batetik, lege-testu beraren 5. artikulua hasteko agindu horrek eduki behar dituen gaiak zehazten ditu, izapide hori gauzatzea betekizun formal huts bat bihurtzea saihestearren.

Hori horrela, Agindu honen bidez bete egiten da 4.1. eta 5. artikulua horiek agintzen dutena.

## **OINARRI JURIDIKOAK**

### **I.– Prozeduraren hasiera agintzeko eskumena.**

Agindu honen helburua da hasiera ematea «Haurren eta nerabeen eskubideei eta horien bermeari, prebentzioari eta babesari buruzko legearen aurreproiektua» egiteko prozedurari.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da indarrean dagoen eta ondore guztietarako ordeztu nahi den HNLaren 104.1 artikulua Eusko Jaurlaritzari ematen diola, gizarte gaitan eskudun den sailaren bidez, arrisku- edo babesgabezia-egoeran dauden haur eta nerabeen babesari buruzko legegintza-ekinbidea gauzatzeko ardura.

Eta, bestetik, HNLaren 105.1 artikulua arabera, Eusko Jaurlaritza da, justiziaren arloan eskumena duen sailaren bidez, arau-hausle adingabeen gizarte- eta hezkuntza-arloko arretari buruzko legegintza-ekinbidea gauzatzearren arduraduna.

Lehen adierazitakoaren ildoan, eta Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren edukiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen baititu, hauek dagozkie Enpleguko eta Gizarte Politiketako eta Lan eta Justiziako sailei, beste egiteko eta jardun-arloen artean:

- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari, gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak, baita haurrak ere –8.1 artikulua e) eta g) letra, hurrenez hurren–;
- Lan eta Justizia Sailari, espetzeak; bereziki, haien antolaketa eta funtzionamendua eta espetze-legeria betearaztea. Lege horiek espetzeetako administrazio organo zentraleri esleitzen dizkieten ahalmenak bere gain hartzea eta arau-hausle

adingabeen arloko eskumenez baliatzea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkion eskumenen kalterik gabe –16.1 artikularen g) eta h) letrak–.

Horiek horrela, Enplegu eta Gizarte Politiketako eta Lan eta Justizia sailen eskumen-esparruan kokatzen dira, hain zuzen ere, lege-aurreproiektu honen xede materiala osatzen duten berezko gaiak.

Eta, horren ondorioz, hasteko agindua Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Lan eta Justiziako sailburuak eman behar dute.

## **II.– Lege-aurreproiektuaren aztergaia eta helburua.**

Bultzatu nahi den lege-aurreproiektuaren funtsezko helburua da lege-esparru berri bat artikulatzea euskal ordenamendu juridikoan. Lege-esparru hori integrala eta zeharkakoa izango da, ikuspuntu global eta diziplinartekoa izango du, eta bere helburua izango da haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko sistema arautzea eta garatzea, adingabeen eskubideak bermatzeko neurri edo politiken eraginkortasuna ahal den heinean hobetzeko, eta urratu diren eskubideak erreparatu edo leheneratzeko ekintzak ere hobetzeko.

Horretarako, arreta berezia jarriko zaio eskubideen sustapenari (kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza), eta, horrekin estu lotuta, prebentzioaren ikuspegiari (detekzio eta arreta goiztiarra), kontuan hartuta haurren eta nerabeen alde egituratu daitekeen babes-sistematik onena fase goiztiarrean aplikatu daitekeena dela; izan ere, modu horretan, saihestu egingo da adingabe horiek babes-sisteman sartzea eta, ondorioz, esku-hartze asistentziala. Lege-testuak bilatuko duen goiburua da ez dagoela prebentzioa baino babes-neurri hobeagorik; izan ere, prebentzio-politika egoki eta eraginkor batek bertan behera utz dezake babes-beharra, esku-hartze asistentzialaren bitartez garatzen dena, zenbait esku-hartze sistematik (hezkuntza zein osasun sistematik, edota sistema sozial zein judizialetik).

Aurreko premisa horretatik abiatuta, arreta eta esku-hartze ereduaren antolakuntza ahalbidetuko duten funtsezko elementuak finkatu eta zehaztuko dira, inplikaturako sistemen arteko koordinazio-irizpideetan oinarrituta. Modu horretan, honakoak ere bermatuko dira: (i) ekintzen eta esku-hartzeen koherentzia; (ii) baliabideak, informazioa eta ezagutzak modu arrazional eta eraginkorragoan aprobetxatzea; eta (iii) detekzio eta esku-hartze arloko prozeduraren bizkortasuna.

Hori guztia, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldarazten duten uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoan eta uztailaren 28ko 26/2015 Legean aurreikusitako esparrura egokitzeko eguneratzeaz gain. Eta, bereziki, oso-osorik garatuko dira zehaztu gabe dauden eta interpretazio ugari ekar ditzaketen eta, ondorioz, segurtasun juridikoaren printzipioari kalte egiten dioten Estatuko oinarritzko xedapenak (adibidez, behin-behineko zaintza, zaintzaren eskuordetzea edo adopzio irekia); edo, betearazpen efektiboari dagokionez, arlo horretan aplika daitekeen legeria autonomikoan aurreikusitako erregulazio osagarria edo garapeneko erregulazioa behar dutenak (adibidez, arrisku-egoera deklarazioa). Modu horretan, Estatuko legeriaren eta euskal legeria autonomikoaren arteko harmonia lortuko da.

## **III.– Bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Erabiltzen den eskumenaren lege-esparrua honako hauetan xedatzen da: Espainiako Konstituzioko (Konstituzioa) 39. artikulua dioenez, agintari publikoen betebeharra da «familiarri gizartean eta ekonomian babesa bermatzea eta babes juridikoa ematea». Eta

aipatutako xedapenaren ildo beretik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 9. artikulua (aurrerantzean, EAEAE) ezartzen duenez, euskal herri-aginteez, beren eskumenen esparruan, «herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztupoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute, eta Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alarretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute, eta alde horretatik bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute».

Ondorioz, funtsean, «gizarte-laguntzaren» arloan EAEk eskumen eskusiboa duela ezartzen duen EAEko autonomia-estatutuaren 10. artikulua (12. apartatua) lortzen du babes juridikoa; eta, berariaz, gai hauen gaineko eskumenetan: «komunitate-garapenaren, emakumearen egoeraren, eta haurrentzako, gazteentzako eta hirugarren adinekorentzako politikaren» arloetan (39. apartatua). Eskumen horiek zuzeneko lotura edo zerikusia dute gizarte-laguntzari dagokion eskumen orokorrenekin eta, hori bezala, Autonomia Erkidegoarenak dira eskusiboki.

Halaber, bultzatzen den lege-ekimenak oinarritzat hartzen du Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela «adingabeak zaintzeko erakundeen eta tokien, espetxeen eta gizarteratzeko lekuen antolaketa, araubidea eta funtzionamenduari dagokionez, arlo zibileko, zigor-arloko zein espetxe-arloko legeria orokorren arabera», EAEko autonomia-estatutuaren 10.14 artikuluari jarraikiz.

Eta ildo beretik, aipatu beharra dago Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa dela «Euskal Herria osatzen duten herrialde historikoen Zuzenbide Zibila, Forala eta berezia, idatzizkoa zein ohihurtzako, artatu, aldatu eta garatzea, bai eta hura indarrean izango den lurralde eremua finkatzea ere», EAEko autonomia-estatutuaren 10.5 artikuluan Konstituzioaren 149.8 artikuluari dagokionez xedatutakoari jarraikiz.

Neurri txikiago batean, EAEren esku-hartzea gaitzen duen oinarri juridikoaren euskarria, era berean, autonomia mailako eskumen-titulu hauek dira.

- Hezkuntza. Autonomia Erkidegoari dagokio irakaskuntzaren eskumena zabalera, maila, gradu eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren 27. artikulua eta hura garatzen duten Lege Organikoen, 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenen eta haiek betetzeko eta bermatzeko behar den ikuskapenaren (EAEAE, 16. artikulua) kalterik gabe.
- Osasuna. Autonomia Erkidegoari dagokio, barne-osasun arloan, Estatu oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea (EAEAE, 18.1 artikulua).
- Gizarte hedabideak. Autonomia Erkidegoari dagokio estatu mailan onetsitako arlo honetako oinarrizko arauen lege-garapena, betiere Konstituzioaren 20. artikuluan ezarritakoa betez (EAEAE, 19.1 artikulua).
- Ingurumena. Autonomia Erkidegoak du, EAEko autonomia-estatutuaren 11.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, Estatu oinarrizko legeria haren lurraldean lege bidez garatzeko eta betearazteko eskumena eta, Autonomia Erkidegoak arau gehigarriak ezartzeko duen ahalmenaren kalterik gabe, Konstituzioaren 149.23 artikulua babesean.

Azkenik, ezin dira alde batera utzi Autonomia Erkidegoari honako arlo hauei dagokienez esleitutako eskumen eskusiboak: kultura (EAEAE, 10.17 artikulua); kontsumitzailearen eta erabiltzailearen defentsa (EAEAE, 10.28 artikulua eta lege-testu beraren 10.27 artikulua); eta kirola eta aisia (EAEAE, 10.36 artikulua).

Euskal administrazio publikoen arteko eskumenen banaketa Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean zehazten da. Eta, legearen edukiaren arabera, erakunde komunei dagokie gizarte-laguntzaren arloko legegintzarako ahala, baita haurrentzako eta gazteentzako politikaren arlokoa ere, 6.1 artikuluari jarraikiz. Bestalde, 7 c) artikuluaen arabera, lurralde historikoetako foru-organoen eskumena da aipatutako arloetan onetsitako legeria haien lurraldean betearaztea, Euskadiko erakunde komunek arlo horiei dagokienez egin ditzaketen zuzeneko ekintzen kalterik gabe.

Sustatutako araugintza-ekimenaren oinarri den eskumen- eta lege-sistema osatzeko, gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen (aurrerantzean, GZL) 39.3 artikulua, gizarte-laguntzaren edo ongizatearen arlo orokorrari dagokionez, honela definitzen du zuzeneko ekintza: «baliteke prestazio eta zerbitzu batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan bateraturik eskaini behar izatea, hain zuzen ere, interes orokorrekoak direlako, edo direnak direlako edo diren bezalakoak direlako, edo zenbat erabiltzaile izan ditzaketen kontuan harturik, edo autonomia-erkidegoan eskainita lor daitezkeen eskala-ekonomiak kontuan harturik; bada, lege honen ondorioetarako, prestazio eta zerbitzu horien gaineko gauzatze-eskumena da zuzeneko ekintza».

#### **IV.– Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak.**

Lege-aurreproiektua onesten bada, esplizituki eta ondore guztietarako indargabetuko da HNLa (2005eko martxoaren 30eko EHAA, 59. zk.).

Halaber, eragin inplizitua izan dezake gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean (2008ko abenduaren 24ko EHAA, 246. zk.), eta ondorioak izan ditzake HNLaren garapenean emandako xedapen arauemailetan, edo gaiarekin zerikusia duten xedapenetan; besteak beste, hauetan:

- 165/2007 Dekretua, urriaren 2koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortu eta horren funtzionamendua, osaera eta eginkizunak ezartzen dituena (2007ko urriaren 16ko EHAA, 199. zk.).
- 219/2007 Dekretua, abenduaren 4koa, Haur eta Nerabeen Behatokiari buruzkoa (2007ko abenduaren 20ko EHAA, 244. zk.).
- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena (2008ko abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk.).
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena (2008ko abuztuaren 8ko EHAA, 150. zk.).
- 163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeen gizarte- eta hezkuntza-arloko arretarako erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa (2008ko urriaren 17ko EHAA, 199. zk.).
- 114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena (2008ko ekainaren 27ko EHAA, 122. zk.).
- 277/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzaileen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituena (2012ko urtarrilaren 24ko EHAA, 16. zk.).
- 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan

arriku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnaren eguneraketa onesten duena (2017ko uztailaren 3ko EHAA, 125. zk.).

- 179/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duena (2018ko abenduaren 21eko EHAA, 245. zk.).

## **V.- Aurrekontuetan izango duen eragina.**

Arau-esparru berria onesteak zalantzarik gabe eragin ekonomikoa izango du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan, foru-aldundi bakoitzak haren lurralde historikorako onartutako aurrekontu orokorretan eta toki administrazioaren arloari dagozkion aurrekontuetan; arautu beharreko gaiaren eraginpeko jardun-arloekin zerikusia duten aurrekontu-sailetan, zehazki.

Hala eta guztiz ere, une honetan ezinezkoa da legezko arauketa berriaren edukiak izango dituen ondorio ekonomikoak balioztatzea. Eta, bereziki, ezinezkoa da lege berria aplikatzeak gastua areagotuko duen jakitea, ez baitakigu haren edukitik eratorritako betebeharrak gaur egun euskal administrazio publikoek haien eskumeneko gaien eta lurraldeen esparruan legea aplikatzeko bete behar dituzten eginbideen berdinak edo, gutxienez, parekoak izango diren ala ez. Batez ere kontuan hartuz gero legearen edukitik erator litezkeen funtzio berriak Estatuko oinarritzko legerian dagoeneko aurreikusten diren xedapen arauemaileek ezartzen dituztela gehienbat.

Aurrekoa oinarritzat hartuta, eragin ekonomikoa – proposatutako arauketa berria indarrean jartzearen eragina jasango duten euskal administrazio publiko desberdinen aurrekontuei dagokiena, eta, hala badagokio, haurren eta nerabeen kasuetan esku hartzearen eta kolektibo hori zaintzearen eta babestearen arloko jardueretan eduki lezakeena— memoria ekonomiko batean jasoko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barne-ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. eta 43. artikuluetako eskakizunak betez egin behar da eta. Memoria hori espedientean txertatuko da, XOEPLren 10.3 artikuluan xedatuta dagoena betetzeko.

## **VI.- Lege-aurreproiektuaren edukia.**

Lege-aurreproiektuaren helburua, aurreratu dugun bezala, haurren eta nerabeen inguruko gaiak modu integral eta zeharkakoan (transbertselean) arautzea da, diziplina anitzeko ikuspegi orokor batetik. Horretarako, ordeztu nahi den lege-araudiaren (HNL) edukia hartuko da oinarritzat, haurren eta nerabeen zaintzan, haiekin zerikusia duten esku-hartzeetan eta arriku- edo babesgabezia-egoeran dauden adingabeen babesean ardatzen baita.

Araudi honi dagokionez, aitortu behar da aitzindaria dela euskal ordenamendu juridikoan; izan ere, testu bakar batean bildu nahi ditu haur eta nerabeei ezagutzen zaizkien oinarritzko eskubide guztiak, dagoeneko autonomia erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste arau batzuetan jasota daudenak. Batez ere, legean beren-beregi jaso zer printzipiok gidatu behar duten Administrazioaren jarduketa eskubide horiek benetan eta eraginkortasunez erabili daitezzen sustatu eta defendatzeko.

Dena dela, orain sustatu nahi den ekimenak HNLaren edukia osatu eta eduki berria gehitu nahi du, eragin nabarmenagoa izan dezan haurren eta nerabeen parte-hartzearen inguruko arloetan: haien eskubideen sustapena (kontzientziazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza); prebentzioa (detekzio eta arreta goiztiarra); haurren eta nerabeen babesa; eta haien eskubideen urraketen erreparazioa.

Horretarako, eta ildo beretik, aipatutako lege-aurreproiektuan jarraian zerrendatuko diren

alderdi eta gaiak landu eta garatuko dira, modu orokor edo espezifikotan, zehazten diren jardun-arloei dagokienez:

- Adingabearen interes nagusia.
- Haur eta nerabeen arloko politikaren oinarri orokorrak.
  - Erakundeen arteko koordinazioa.
  - Laguntza emateko betebeharrak.
  - Araudiaren eraginaren ebaluazioa.
  - Haurren eta nerabeen inguruan egindako gastuaren aurrekontu-kuantifikazioa eta -neurketa, eta horren inguruko lehentasuna.
  - Erantzunkidetasuna.
- Administrazio-jardunaren printzipio gidariak, adingabeei dagokienez.
- Haurren eta nerabeen eskubideak:
  - Eskubideen bermea.
  - Zabalkundea, informazioa eta prestakuntza.
  - Eskubideen defentsa.
  - Entzuna eta kasu egina izateko eskubidea.
  - Bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea.
  - Herritartasun-eskubideak (tartean, ohorerako, duintasunerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea; ideologia, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea; parte hartzeko, elkartzeko eta biltzeko eskubidea; adierazpen-askatasunerako eskubidea; baztertua ez izateko eskubidea; datu pertsonalen babeserako eskubidea).
  - Identitaterako eskubidea (eta, berariaz, jatorri biologikoak ezagutzeko eskubidea).
  - Familiaren esparruko eskubideak.
  - Bizimodu duinerako eta gizarteratzeko eskubidea.
  - Osasunerako eskubidea.
  - Hezkuntzarako eskubidea.
  - Kulturarako eskubidea.
  - Aisialdirako eta denbora libre aktiborako eskubidea.
  - Jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidea.
  - Informazioarekin, publizitatearekin eta komunikabideekin lotutako eskubideak.
  - Kontsumoarekin lotutako eskubideak.
  - Ingurumenarekin, hiri-ingurunearekin eta mugikortasunarekin lotutako eskubideak.
- Haurren eta nerabeen betebeharrak:
  - Familiaren esparruko betebeharrak.
  - Eskola-eremuko betebeharrak.
  - Gizarte-eremuko betebeharrak.
- Haur eta nerabeen eskubideen sustapena.
  - Herritarren sentsibilizazioa.
  - Haurrekin eta nerabeekin harremanetan egon ohi diren profesionalei zuzendutako informazio eta prestakuntza zehatza.

- Haur eta nerabeen prebentzio orokorra (lehen mailakoa) eta adierazia (bigarren mailakoa):
  - Prebentzio orokorra (osasunaren arloan, hezkuntzaren arloan, familiaren arloan eta arlo sozialean).
  - Edozein indarkeria-motaren aurkako prebentzioa.
  - Prebentzio adierazia (arrisku sozialaren eta babesgabezia-egoeren prebentzioa).
  - Legearekiko gatazka-egoeren prebentzioa.
  
- Haur eta nerabeen kontrako indarkeriaren aurkako babesa:
  - Indarkeriaren kontzeptua.
  - Erakundeen artean lankidetzan eta koordinazioan aritzeko betebeharra eta erantzunkidetasuna.
  - Indarkeria-egoerak antzeman eta horiek jakinaraztea (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, justizia, polizia).
  - Arreta indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeei (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, justizia eta polizia).
  - Bigarren mailako biktimizazioaren aurreko babesa.
  - Arreta espezializatua sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima izan diren haur eta nerabeentzat.
  - Arreta espezializatua genero-indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeentzat.
  - Lehentasunez, haurra edo nerabea indarkeriarik gabeko familia-giro batean egotea.
  - Haur eta nerabeei eragindako indarkeriari buruzko informazioaren tratamendua.
  - Haurren Tratu Txarren Erregistro Bateratua.
  
- Arrisku eta babesgabezia-egoeren aurreko babesa (orokorra).
  - Administrazio-jardunaren printzipio eta irizpide zehatzak.
  - Komunikatzeko eta salatzeke betebeharra.
  - Informazioa isilean edukitzeko betebeharra.
  - Erakundeek elkarlanean eta koordinatuta jarduteko betebeharra.
  - Erantzunkidetasuna.
  - Prozeduretan interesa duten pertsonen eskubideak eta bermeak.
  - Espedientea.
  - Babes-plana.
  - Neba-arreben taldeak.
  - Babes-neurriren bat (osasunaren edo hezkuntzaren arloan) hartu duten haur eta nerabeentzako lehentasunezko jarduketak.
  
- Arrisku-egoeretako babesa:
  - Arrisku-egoeraren kontzeptua.
  - Egoera espezifikoa (jaino aurreko arriskua eta adingabe emantzipatuak).
  - Gizarte-zerbitzuen esku-hartzea.
  - Arrisku-egoeraren balorazioa.
  - Gizarte eta hezkuntza arloko arretarako neurriak, arrisku-egoeretan.
  - Guraso, tutore eta zaintzaileen lankidetzak.
  - Arrisku-deklarazioa, lankidetzarik ez dagoen kasuetan.



- Babesgabezia-egoeretako babesak:
  - Babesgabezia-egoeraren kontzeptua.
  - Babesgabezia-egoerak.
  - Egoera espezifikoak (haurdun dauden edo seme-alabez arduratzen diren adingabeak eta bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak).
  - Prozedurak (arrunta eta larrialdietakoa).
  - Babesgabezia-deklarazioa eta tutoretza hartzea.
  - Tutoretzan jardutea eta tutoretza amaitzea.
  - Tutoretzan jardutea.
  - Familia-harrera.
  - Egoitza-harrera.
  - Zaintza eskuordetzea egonaldietarako, irteeretarako eta oportetarako.
  - Tutoretza amaitzeko arrazoiak.
  - Bizikidetzea-ingurunearen mailaz mailako trantsizioak.
  - Familia bateratzea.
  - Bizimodu independenterako prestaketa.
  
- Zaintza:
  - Zaintza-kasuak.
  - Izatezko zaintza.
  - Borondatezko zaintza.
  - Zaintza, ebazpen judizialagatik.
  - Behin-behineko zaintza, berehalako arretaren betebeharrean aritzeagatik.
  - Zaintza-neurrien iraupena.
  - Zaintza amaitzeko arrazoiak.
  - Erakunde publiko batek bere gain hartutako zaintzak eragindako gastuak ordaintzea.
  
- Adopzioa:
  - Adopzio-proposamena.
  - Adopzio-proposamena formulatzeko irizpideak.
  - Zaintza eskuordetzea, adopzioaren helburuarekin.
  - Adopzio motak: nazio barrukoa eta nazioartekoa.
  - Beren buruak adopzioarako eskaintzen dituzten pertsonen egokitasun-deklarazioa.
  - Adopzioaren osteko babes-neurriak.
  - Adopzio irekia.
  
- Gizarte eta hezkuntza arloko arreta ematea legearekin gatazkan dauden adingabeei.
  - Arau-hausle adingabeak.
  - Administrazio-jardunaren printzipio gidariak.
  - Babes-jardunarekiko bateragarritasuna.
  - Koordinazioa babes-jardunarekin.
  - Justiziaz kanpoko bitartekaritza, kontziliazioa eta konponketa.
  - Neurriak hartzea adingabearen inguruan.
  - Askatasunaz gabetzen duten neurriak betetzeko eta heziketa-taldeko bizikidetzarako heziketa-zentroetako neurriak.

- Askatasunaz gabetzen duten neurriak betetzeko eta heziketa-taldeko bizikidetzarako heziketa-zentroak:
  - Araudi erregulatzailerak.
  - Ikuskaritza.
  - Adingabeen eskubideak eta betebeharrak.
  - Jagoletzarako eta segurtasunerako neurriak.
  - Diziiplina-araubidea.
- Eskumenen banaketa.
- Instituzioen antolaketa: haurren eta nerabeen eskubideak bermatzeko kontsultarako eta parte hartzeko organoak.
- Gizarte ekimena sustatzea.
- Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

## **VII.– Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

Honako izapide eta txosten hauek egin behar dira, hasiera batean, aurreikusitako lege-aurreproiektua lantzeko eta onesteko:

**1.–** Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28ko bileran hartu zuen erabaki bat, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituena. Erabaki horren lehenengo apartatuan (1. puntua) xedatuta dagoenaren arabera, EA Eren Administrazio gainerako sailari eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie sustatutako araugintza-ekimena, hasteko agindu hau LEGESAREA ezagutza partekatua lankidetzarako gunean argitaratuz, helbide honetan: <http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>.

**2.–** Lege-aurreproiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da aintzat, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezotasuna bermatzeko beharrezkotzat joko eta egingo diren kontsulten emaitzak ere.

Horri dagokionez, ulertu behar dugu XOEPLren 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasierako fasean sartuta dagoela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, APAPPEL) 133.1. artikuluan xedatutakoa, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoa.

Artikulu horrek zehazten duenez, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunen web-atariaren bidez, erregelamendu-proiektua edo lege-proiektua edo -aurreproiektua egin baino lehen; eta, kontsulta horretan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek duten iritzia galdetuko da, zehazki: (i) ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak; (ii) arau hori onestea beharrezko eta egoki den; (iii) arauaren helburuak; eta (iv) izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Aurrekoari estu lotuta, Gobernu Kontseiluak, 2017ko abenduaren 12ko bilkuran, beste erabaki bat onartu zuen, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduren izapideak egiteko jarraibideak eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren

esparruan sustatzen diren xedapen orokor arauemaileak izapidetzeko jarraibideak onartzeko (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.). Bertan ezartzen da zer jarduketa-protokolo baliatu behar den APAPELen 133.1 artikuluko kontsulta-publikoa egiteko. Horretarako, hiru jarduketa hauek gauzatu behar dira:

- Iragarki bat jartzea EAEko administrazio publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, zeinak herritarrei parte hartzeko gonbita egingo baitie agerian jarriko den informazioaren inguruan: ea beharrezkoa eta egokia den arau hori onestea; arauaren helburuak; konpondu nahi dituen arazoak eta ordezkotza irtenbide posibleak, arautzaileak eta ez-arautzaileak.
- Informazio hori Legegunean argitaratuko da.
- Halaber, aurreko informazioa Gobernu Irekiaren Plataforman argitaratuko da, Irekian.

**3.-** Kontsulta publikoaren izapidea bete ondoren, alde zuzenetik onetsi beharreko arau-ekimenaren azken testua bi hizkuntzatan idatzi behar da (euskaraz eta gaztelaniaz), legeen, legegintzako dekretuen, dekretuen edo aginduen mailako xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartu zituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiak agintzen duena betetzeko (erabaki horrek XOEPL osatzen du).

Horregatik, aurretiaz onetsi behar den testuaren euskarazko bertsioa zehatza eta gaztelaniazkoaren baliokidea –eta alderantziz– dela bermatzeko, euskarazko bertsioa Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak idatziko du.

**4.-** Lege-aurreproiektuaren testua euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi ondoren aurreko 3. puntuan azaldu den moduan, eta dagozkion negoziazio-, entzunaldi-, jendaurreko erakustaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, eta egoki diren derrigorrezko txosten edo irizpenak eskatu baino lehen, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari eta Lan eta Justiziako sailburuari aurkeztuko zaie, onets dezaten, XOEPLren 7.1 artikulua arautzen duena betetzeko.

Era berean, alde zuzenetik onesteko agindua, lege-aurreproiektuaren testua eta hasteko agindua ezagutza partekatutako LEGESAREA lankidetzarako gunean argitaratuko dira (<http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>), Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehen apartatuan (2. puntua) agintzen den moduan.

**5.-** Bestalde, lege-aurreproiektua -prozeduran dagoen unean- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali behar zaio, aurretik Enpleguko eta Gizarte Politiketako eta Lan eta Justiziako sailburuek oniritzia emanda, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrera bidaliko da aurretiaz onartutako lege-ekimenaren testua, Jaurlaritzaren Legearen 56.1 artikulua betetzeko, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera.

**6.-** Zenbait sailek batera egindako lege-aurreproiektua egiteko prozeduraren izapidea bada ere, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura orokorrean sartzen da lege-aurreproiektu hori egiteko eta izapidetzeko nahiz prozedura egokia bideratzeko eta izapidetzeko ardura duen organoa. Hortaz, txosten juridiko bat egingo du bakar-bakarrik Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak, honako hauek aztertuko: proiektuaren funts objektiboa, haren edukia legearekiko eta zuzenbidearekiko egokia den eta arau-teknikaren jarraibideak bete diren. Hori guztia egiteko, XOEPLren 7.3 artikulua arautzen duena bete behar da, bai eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuaren 8.1 artikuluko h) paragrafoa ere.

Hala eta guztiz ere, goian aipatutako txosten juridikoa igorri ondoren, Lan eta Justiziako Sailak ere lege-aurreproiektuaren edukiari buruz duen iritzia adieraz dezan, sail horretako Zerbitzu Zuzendaritzari txosten tekniko-juridiko bat igortzeko eskatuko zaio, sailen entzunaldi-izapidearen fasean, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 6.1 d) artikuluekin bat etorritz.

**7.-** Era berean, kontuan izanik arautu beharreko gaiak izaera transbertsala duela eta haur eta nerabeek jardura publikoaren arlo guztietan presente egotea dakarrela (biztanleen kolektibo honek arreta berezia merezi du), eta, ondorioz, gaiak beste sailei dagozkien jardun-arloetan eragina izan dezakeenez haien eskumeneko gaien esparruan (haurren eta nerabeen gai espezifikotik aparteko gaietan), EAEko Administrazio Orokorreko sail guztiei helaraziko zaie legegintza-proposamena. Horrela, aukera izango dute egokiak iruditzen zaizkien ekarpenak egiteko edo oharrak emateko ekimenaren zuzentasunaren eta egokitasunaren inguruan; bereziki, sustatzen den lege-proposamenak haien eskumeneko gaietan izan dezakeen eraginaren inguruan.

**8.-** Bestalde, generoaren araberrako eragina ebaluatzeko txostena jasoko da espedientean, lege-aurreproiektua egiteko organo arduradunak egina, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18. artikulutik 20. artikulura bitartean xedatutakoa betez; eta, zehazki, aipatutako legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenak agindutakoan oinarrituz, zeinak Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko osoko bilkuran hartutako Erabakiari publikotasuna emango zaiola xedatzen duen: «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa».

**9.-** Era berean, proiektatutako araudiak haurrengan eta nerabeengan izango duen eragina aztertzeko memoria bat egingo da, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak 22 quinquies artikuluan arautzen duen moduan. Lege organiko hori adingabeen babes juridikoari buruzkoa da, eta partzialki aldatu zituen Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea; hain zuzen ere, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eman dion idazkera hartu da kontuan.

**10.-** Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6.1 artikuluan xedatuta dagoena betetzeko, enpresak sortzean, abian jartzean eta haien funtzionamenduan arau-proiektuak eduki dezakeen inpaktuari buruzko ebaluazio-txostena txertatuko da espedientean.

**11.-** Entzunaldi- eta jendaurreko informazio-izapideak egingo dira, baita lege-aurreproiektuan aurreikusitako arauketaren eragin zuzena jasan dezaketen Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioek parte hartzeko eta haiei kontsultatzeko izapideak ere —XOEPLren 8. eta 9. artikulua aplikatuta, hurrenez hurren—, lege-aurreproiektuaren berri emanez eta beherago adierazi bezala.

Batetik, egokia deritzogu jendaurreko informazioaren izapidea egiteari, gaiak zuzenean eragiten baitie herritarren eskubide eta interes legitimoiei. Eragin hori are nabarmenagoa da, lehen aipatu bezala, arautu beharreko gaiak izaera transbertsala duelako. Beraz, izapidea bat dator 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioekin; izan ere, 11. artikuluan informazio-askatasuna aitortzen baitu, 41. artikuluan administrazio ona izateko eskubidea eta 42. artikuluan, aldiz, instituzioen agiriak eskuratzeko eskubidea.

Eta, bestetik, XOEPLren 8.3 artikuluaen bigarren paragrafoan ezarritakoari jarraikiz, entzunaldi-izapiderako kontsulta espezifiko bat egingo zaie haur eta nerabeen zaintzaren eta babesaren arloan jarduerak egiten dituzten entitate eta erakundeei, edo haur eta nerabeen eskubideak sustatzen eta babesten dituztenei. Horrek ez du esan nahi ezin dutenik lege-ekimenaren inguruan duten iritzia eman, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialari txostena eskatzen zaionean. Kontsultarako organo horretan ordezkaturata daude Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, EAEn haurren eta nerabeen arloan lan egiten duten erakunde sozialak eta profesionalen erakundeak.

Halaber, entzunaldi-izapidea egingo da honako organo, instituzio eta erakunde hauekin:

- EAEko Fiskaltza Nagusiarekin, kontuan hartuta adingabeen babesaren arloko administrazio-jardunaren zaintzaile gisa Fiskaltzaren kargu uzten diren funtzioen artean dagoela, bereziki, adingabeen tutoretza, harrera edo zaintza behatzea, adingabeen interes gorenak asebetetzeko helburuarekin.
- Arartekoarekin, instituzio horren administrazio-organoen artean dagoelako Haur eta Nerabeentzako Bulegoa, adingabeen, haurren eta nerabeen inguruan egiten dituzten politika guztiak kudeatzearen eta, bereziki, adingabeei buruzko txostenak eta ikerketak koordinatzearen arduraduna.
- «EUDEL» Euskadiko Udalen Elkartearekin, EAEko udalerrien ordezkariak handiena duen elkarte delako, eta, prozeduran islatuta uzteko haren iritzia proiektutako lege-ekimenarekin lotu nahi diren helburuen eta edukien gainean, tokiko administrazioaren ikuspegitik eta tokiko erakundeen (udalen) eskumeneko gaiet dagokienez.

Azkenik, eta aldi berean, XOEPLren 9. artikuluan aurreikusitako parte-hartzearen eta kontsultaren izapidea beteko da. Zehazki, lege-aurreproiektuaren gaia eta izaeragatik, eta haur eta nerabeen zaintzan eta babesean espezializatutako gizarte-zerbitzuek derrigor aplikatu behar dutenez, lurralde historikoetako foru-organoei haurrei buruzko legeria betearazteko duten eskumena aintzat hartuta (haien lurralde-esparruan eta EAEko Administrazio Orokorrari dagokion zuzeneko ekintzaren kalterik gabe), izapidea foru-aldundiekin egingo da.

**12.–** Hasiera emateko agindu honetaz eta egokiak diren agiri guztiez gain, hauek sartuko dira espedientean: bideratutako azterlanak eta kontsultak, prozedura osoari buruzko memoria laburra eta memoria ekonomikoa, XOEPLren 10.2 eta 10.3 artikuluetan ezarritako edukiarekin. Hartara, Gobernu Kontseiluak, azkenik, lege-aurreproiektua onartuko du, XOEPLren 12. artikuluan ezarritako baldintzetan.

**13.–** Aurreko izapideak alde batera utzita, legegintza-proposamenaren gaia aintzat hartuta, hargatik eragotzi gabe ondoren beste irizpen edo txosten batzuk eskatzeko beharra edo aukera (aldez aurretik onesteko izapidean onartutako lege-proposamenak azkenean arautu dituen gaiak ikusita), prozedura bideratzean nahitaezko txosten hauek bilduko dira, aplikatu beharreko xedapenek edo lege sektorialek ezartzen duten unean eta moduan:

- a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3 d) artikuluan jasotakoaren arabera, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluaekin bat.
- b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.l) artikuluan xedatuta dagoenaren

arabera, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan Kultura Sailak txostenak bideratzeko bete behar duen araudia ezartzen duen abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

- c) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena, uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak 561.1.8 artikuluan ezarritakoa betez. Lege organiko horren idazkera honen araberakoa da: 4/2013 Lege Organikoa, ekainaren 28koa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eraberritzeari buruzkoa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena.
- d) Gizarte-zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren txostena, Gizarte-zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuaren 3. artikuluan a) letran ezarritakoa aplikatzeko, GSLren 44.3 a) artikuluan adierazitakoari dagokionez.
- e) Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren txostena, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren apirilaren 5eko 69/2011 Dekretuaren 4.1. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.
- f) Gizarte-zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txostena, GSLren 48.3 a) artikuluan a) paragrafoan ezarritakoaren arabera.
- g) Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren txostena, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortu eta horren funtzionamendua, osaera eta eginkizunak ezartzen dituen urriaren 2ko 165/2007 Dekretuak 2.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- h) Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen txostena, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen estatutuak onartzen dituen urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren 5 c) eta d) artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.
- i) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. b) artikuluan ezarrita dagoena aintzat hartuta.
- j) Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90 eta 91 artikuluetan xedatutakoarekin bat.
- k) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena, 568/2009 Dekretuaren 10. artikulua ezarritakoarekin bat etorrita (urriaren 20koa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituena), Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateratuaren 25.1. artikuluan inguruan –urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartua–.

**14.–** Azkenik, lege-aurreproiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari aurkeztu behar zaio, irizpena eman dezan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikuluko a) letran xedatuta dagoenaren arabera.

Esparru horretan, eta Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikulua betez –Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketaren arabera–: «Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion

dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten».

### **VIII.- Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideak.**

Ez da ikusten beharrezkoa denik Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea lege-aurreproiektu honi dagokionez, arauaren aplikazio-esparrua, helburua eta xedea aintzat hartuz.

### **IX.- Idazketa-sistema.**

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema hau izango da: Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzultzea lege-testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa.

Aurrez adierazitako guztiagatik, eta eman zaizkigun eskumenak baliatuta, honako hau

#### **EBAZTEN DUTE:**

**LEHENA:** Hasiera ematea «Haurren eta nerabeen eskubideei eta horien bermeari, prebentzioari eta babesari buruzko legearen aurreproiektua» egiteko prozedurari.

**BIGARRENA:** Gizarte Politiketako Sailburuordetza izendatzea aipatutako lege-aurreproiektua egitearen eta prozedura egokia bideratzearen eta izapidetzearen organo arduradun, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuaren 12.1. artikuluko e) paragrafoari jarraikiz.

**HIRUGARRENA:** Lege-aurreproiektua egiteko prozeduran zehar sortuko den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, «TRAMITAGUNE» aplikazio informatikoan (Y52B) kokatutako Gardentasuna atalean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 16/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat.

**LAUGARRENA:** Hasiera emateko agindu hau argitaratzea ezagutza partekatuko LEGESAREA lankidetzagunean; hemen: <http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>.

**BOSGARRENA:** Ondoren, aurrera eramatea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitako kontsulta publikoari dagokion izapidea, aintzat hartuta Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12ko bileran hartutako Erabakiaren lehen apartatua (4. puntua) jasotakoa. Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduren izapideak egiteko jarraibideak onartu zituen erabaki horrek.

**SEIGARRENA:** Lege-testua egiteko eta haren egokitasuna, legezkotasuna eta ezarritako xedek hobeto lortzea bermatzeko beharrezko irizten zaien azterketak eta kontsultak gauzatzea eta txostenak eta irizpenak eskatzea —bereziki, agindu honen VII. oinarri juridikoan ezartzen direnak—, Gobernu Kontseiluari onar dezan helarazi aurretik, .

**ZAZPIGARRENA:** «TRAMITAGUNE» (Y52B) izapidetze elektronikoaren aplikazio informatikoaren bidez gauzatuko da prozeduraren izapidea, eta Gobernu Kontseiluaren erabaki hauekin bat etorri egingo da: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduren izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituena;

eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituena.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a.

Sinatua: Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

Sinatua: Lan eta Justiziako sailburua  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.